

# 4. Unitatea: Balio afrikarrak

Unitate honetan ahozko memoriak Afrikan duen garrantzia ikusiko dugu.

Afrikako gizarte guztietan komunitarioak balio handia duela ere ikasiko dugu.

Ahozko kultura horren barruan, herri-ipuina Afrikako gazteen hezkuntzan eta balioen transmisioan garrantzi handia duela ikasiko dugu.

Eta berez afrikarrak diren balio batzuetan sakonduko dugu, mendebaldeko kulturaren ezezagunak, hala nola *“ubuntu”*.

**Unitate honetan aurkituko ditugun jarduerak:**

Erein, jolastu eta zabaldu begirada.





## Ahozko memoria Afrikan

Afrika ahozko istorio eta literaturaz beteta dago, baita belaunaldiz belaunaldi transmititutako kondaira eta tradizioz ere. **Ahozko tradizioa** deitzen zaio. Ahozko komunikazioa nagusi den gizarteetan, pertsonen eta hitzen arteko lotura sendoagoa da, pertsonak beren hitzari lotuta eta hitzarekin konprometituta baitaude. Gizartearen kohesioa hitzaren balioan eta errespetuan oinarritzen da. Alde horretatik, ezinezkoa da Afrikako kultura ulertzea ahozko tradizioz gabe, hark eusten baitie elementu guztiei.

**Hitzaren bidez, kultura, mundua ulertzeko modua, harremanak izatekoa transmititzen dira. Hori da hizkuntzaren balioa eta hizkuntzaren kontserbazioak duen garrantzia.** Hitzak Afrikan duen garrantziari buruz, Hampaté Ba idazle eta etnologo maliarrak honako hau dio: “Maliren kultura-ondarearen zati handi bat hitzaren indarrean eta edertasunean oinarritzen da”, baita honako hau ere: “Afrikan, adineko pertsona bat hiltzen denean, liburutegi bat erretzen da”; esaera zahar bihurtutako esaldia.

Hori horrela izanik ere, adierazi behar da Afrikan hainbat idazki dardela gordeta liburutegi garrantzitsuetan. Horren adibide da, Malin, Timbuktuko Andalusi liburutegia, XV. mendetik hona 7.000 eskuizkribu baino gehiago bildu dituen. Antzinako garaietatik, Afrika tradizionalaren ezaggarri nagusia ahozko komunikazio-jardueraren nagusitasun nabarmena izan da. Ahozko kulturaren gune nagusi izaki, bertako herriek ahoz transmititu izan dituzte beren testigantza historiko eta jakinduria gehienak belaunaldi batetik bestera.

## **Amadou Hampâté Bâ**

(Mali, 1900 - 1991) idazle eta etnologo maliarra izan zen, ahozko tradizioaren aldezle, batez ere Peule ahozko tradizioarena. Honako hau esan zuen: “Afrikan, adineko pertsona bat hiltzen denean, liburutegi bat erretzen da”; esaera zahar bihurtutako esaldia.

- **Timbuktuko Liburutegia**  
**Eskuizkribuen xehetasunak**  
**Maliko mapa**



**Afrikako gizartean ahozotasunak ez du indar handia alfabetorik ez dagoelako, baizik eta herri horiek berariaz hautatu dutelako hizketan oinarritzea beren mezu-trukerik gehienak.** Gizarte horietan, hitzaren elokuentziak eta arteak, oro har, funtsezko garrantzia dute beti. “Ondo mintzatzea” baloratzen da (ez esatea soilik) bilera eta batzar publikoetan, eta bere ideiak argi azaltzen eta beste pertsona batzuk konbentzitzen dakiena preziatzen da.

## **Ipuinaren garrantzia Afrikan**

Ahozotasuna nagusi den giro horretan, **herri-ipuinak funtsezko zeregina du gizartearen eta, batez ere, gazteen hezkuntzan.** Ipuina arte bizia da, kontalariaren eta publikoaren arteko konplizitate- eta lankidetza-harremana ezartzen duena. Horrez gain, eta batez ere, hizkuntza irakasteko eta ikasteko bitarteko indartsua da. Helduak zein gazteak genero honetako ospakizunetara joaten dira, hitz mintzatua, trukea eta jendaurreko adierazpena menderatzeko mekanismoak ikasteko asmoz.

Afrika tradizionalen, ipuin-saioak eguzkia sartzean egiten dira. Adituek arrazoiak azaltzen dituzte: eguna argitasunaren, gizarte-errealitatearen eta boterearen esparrukoa da, eta ipuina, aldiz, autoritatearen kontroletik ihes egin nahi duen jarduera, gizarte-klaseari, adinari edo generoari lotutako murrizketak gainditzen dituena, eta, horregatik, egunaren kontrako denboran egiten da, gauean. Gainera, tradizioz, gaua bizien munduaren eta naturaz gaindiko espirituaren (arbasoen, jainko-jainkosen eta abarren) arteko komunio gisa ikusten da. **Testuinguru horretan, ipuina, herri-kontakizun gisa –anonimoa beti–, arbasoengandik dato- rren hitz bizi gisa katalogatzen da oso sarritan.**





▲ Burkina Fasoko Bwa herriko maskara tradizionala

► Maliko txotxongilo tradizionalen antzerkia

**Ipuina arte bizia da, kontalariaren eta publikoaren arteko konplizitate- eta lankidetzaharremana**

**ezartzen duena:** Horrez gain, eta batez ere, hizkuntza irakasteko eta ikasteko bitarteko indartsua da. Helduak zein gazteak genero honetako ospakizunetara joaten dira hitz mintzatu, trukea eta jendurreko adierazpena menderatzeko mekanismoak ikasteko asmoz.



## **Afrikako gizarteetan, ipuinak hainbat alderdi garrantzitsu biltzen ditu: funtzio ludikoa, funtzio pedagogikoa eta funtzio linguistikoa.**

- 1. Funtzio ludikoa: ipuin-saioa gozamenerako unea da.** Kontatzeko modua, kontakizuna egituratzekoa, ahotsaren intonazioak, prozedura komikoak, barre-algarak, kantuak eta abar, denek batera bultzatzen dute entretenimendu-giroa sortzea, eta horrek dibertsio kolektiboa eragiten du.
- 2. Funtzio hezitzailea:** ipuinak funtsezko zeregina du ezagutzen eta balio sozialen transmisioan. **Ipuin orok du beti zerbait entzuten duenari erakusteko**, ez soilik gizartearen funtzionamenduari buruz edo kontakizunak aipatutakoari buruz, baita geuri buruz ere. Mendebaldeko kulturen jakintza batez ere liburuetan ezartzen da; hartan ez bezala, ahozko tradizioko gizarteetan, jakinduria eta ezagutza sarritan eskuratzen dira ipuin-saioetan, esakuneetan, esaera zaharretan eta abarretan.
- 3. Funtzio linguistikoa:** ipuin afrikarra hitzaren artista eta ikasleen artean praktikaturako ahozko jolasa da. Horrela, ahozko adierazpenaren teknika eta arauak jarraitzen die, hau da, “hitzaren erabilera eraginkor eta produktiboari”. Interes eta garrantzi handia du oratoriako artearen eraketan. Ipuin-kontalariaren teknika eta jakintza **akuilu bat dira entzuten duten pertsonengan –neska eta mutil gazteengan batez ere– hitza erabiltzeko gustua eta plazera garatzeko**, kontalariarengan berarengan bezala. Gazteek ikasten ematen dute hasieran denbora, gero beren ipuin propioak kontatzeko saioak zuzendu ahal izateko. Horri esker, hobetu egiten dira hala balio moralen eta sozialen eskuraketan eta transmisioan nola hitzaren artean. Beren hizlari-gaitasunak, gainera, kargu sozialak eman ahal izango dizkie, komunitateetako buruei bezala.

## Komunitarioaren balioa gizarte afrikarretan

Afrikako filosofo batzuek mendebaldeko kulturatik datorren “pentsatzen dut; beraz, banaiz” esaldia kultura beltz-afrikarraren bertsioarekin kontrajartzen dute: “nik bestea sentitzen dut, harekin dantzatzen dut; beraz, existitu egiten naiz”. Planteamendu horrek ikusmolde filosofiko bat erakusten du, non **pertsonaren izateko arrazoia beste pertsona batzuen existentzia eta presentzia baita.**

Uste izaten da pertsona bakartu batek oztopo gehiago izango dituela arazo bat berak bakarrik konpondu nahi duenean, baina familiak, leinuak edo komunitateak, aldiz, norbanakoaren identitatea eraikitzeke eremu gisa, eraginkortasun handiagoz konponduko dutela. Horren arabera, pertsonaren errealizazio- eta emantzipazio-mekanismoetan, “ezinbestekoak gara denok”. Alde horretatik, **bizitza komunitarioaren hierarkiaz eta taldeak bizitzari eta banakako interesei buruz dituen balioez** hitz egiten da.

Afrikan pertsonak duen dimentsio komunitarioaren logika horretan sartzen da “Dena hazten da batera elkarren arteko kausalitatean, eta denok partekatzen dugu erantzukizuna” dioen bantu esaera. Pertsonak izaki desberdinak dira, elkar ezagutu eta elkar aintzat hartzeko gai direnak, elkarrekin topo egin eta beste pertsona batzuekin batera bizitzearen bidez. Afrikako filosofo batzuen ustez, indibidualtasun beltz-afrikarrak hiru ardatz nagusi ditu: **antzinakotasuna, familia eta komunitatea, pertsonaren izaera definitzen dutenak.** Afrikan leinu bateko komunitate-bizitzan, kide bakoitzak talde-oparotasunaren protagonista izan behar du, ohiturek adierazten duten bezala. Ikuspegi horretatik, norberaren abantailak, interesak eta banakako ekimenak biziraupen kolektiboaren mende daude.

Komunitatearen garrantzia laburtzen du kultura beltz-afrikarrak bere egiten duen esaldi honetan: “**Garelako naiz, eta, garenez, existitu egiten naiz**”. Planteamendu etiko horrek hainbat esaera sortu du, hala nola “*Motho ke motho ka batho babang*” (**SOTHO**) “Beste batzuen bidez eskuratzen da norberaren indibidualtasuna”; baita “*Muthu edo bebelwa munwe*” dioen esaera ere, hau da, **pertsona bat beste batzuentzat jaiotzen dela, eta horrek adierazten duela pertsonaren eta haren komunitatearen arteko interdependentzia.**



**Bantu esaera: “Dena hazten da batera elkarren arteko kausalitatean, eta denok partekatzen dugu erantzukizuna”.**

▼ **Ndbele-en etxe margotuak: beren etxeak paretan margotzeko modu tradizionala**

**Giza eskubideen aldeko kantari ekintzaileak: Aziza Brahim, Miriam Makeba eta Concha Buika**

**“Artea gizakiak eman zaion errealitatea ez den beste bat sortzeko etengabeko ahalegina da”.**

**Chinua Achebe**







## ▲ Tiébélé-en etxe margotuak Albertina Sisulu eta Winnie Mandela

### Zer da Ubuntu?

*Ubuntu* afrikar balio berezkoa da, deskribatu berri dugun komunitatearen balioarekin lotua. **Ubuntu, Afrikako kulturaren, errukia, elkarrekotasuna, duintasuna, harmonia eta gizatasuna adierazteko gaitasuna da, komunitate bat justiziaz eta elkar zainduz eraiki eta mantentzeko interesean.** Afrikako herrialde gehienetan existitu da milaka urtez, eta Afrikako kultura tradizionalaren balioen erdigunean dago oraindik.

Ubuntu hitza Hegoafrikako **NGUNI** hizkuntzatik dator. Gure interkonexioaz hitz egiten du, gure gizateria komunaz eta gure konexio sakon sentitutik datorren elkarrekiko arduraz. Ubuntuk sinestera eta sentitzera gonbidatzen gaitu: **“Zure mina nire mina da, Nire aberastasuna zure aberastasuna da, Zure salbazioa nire salbazioa da”**.

Adostasuna bilatzera, elkar ulertzera eta harmoniari eustera bideratutako prozesuak dira Ubuntu, Afrikako kulturaren zati garrantzitsu bat. **Afrikako eta Mendebaldeko pentsalari askok uste dute ubuntu Afrikako kulturak balio horien beharrea dagoen munduari egin diezaiokeen ekarpen handia dela.**

Afrikako kulturak gaitasun handia du ondasun komunaren lekua aurkitzeko, bai orainaldian, bai iraganarekin lotuta. Buruzagi tradizionalen edo beste lider komunitario on batzuen trebetasunek barne hartzen dute beste pertsona batzuekiko integrazioarekiko sentsibilitatea, gardentasuna eta tolerantzia. **Horrek, askotan, denbora hartzeko konpromisoa eskatzen du, entzuteko eta elkar ulertzeko prozesuak gauzatzeko.**

Beharbada, Hegoafrikaren lorpen politikoaren atzean dauden kultura-dinamiketako batzuk Afrikako buruzagiek urte askoan izan zuten pazientzia, heldutasuna eta adiskidetze-trebetasuna dira. Nelson Mandelak eta beste lider batzuek, hala nola Winnie Mandelak, Albertina Sisuluk edo Steve Bikok, **arazoei buruz adostasun duina lortu arte eztabaidatzeko modua aurkitu zuten.**

Gure konexioa aurkitu eta eraikitzearen zerbitzura dagoen jakinduria adiskidetzailerik Afrikako kultura-herentziari berez dagokion balioa da, eta arreta handiagoa merezi du munduaren aldetik.

## Ba al zenekien?

**58.or.: Txotxongiloen antzerki tradizionala:** txotxongilo tradizionalak komunitate bateko objektu kolektiboa dira. Gazteek eta zaharrek diziplina honetako ohiturak zaintzen dituzte.

**60.or.: Ndebeles-eko etxe margotuak:** Pintura horiek, beti emakumeek eginak, erresistentzia kulturalaren eta herriaren jarraitutasunaren adierazpen bihurtu ziren.

**Giza eskubideen aldeko kantari ekintzaileak:**

- **Aziza Brahim (Aljeria):** kantari eta perkusionista, Saharako kulturaren eta kausaren sinboloa.
- **Miriam Makeba (Hegoafrika):** Mama Africa ere deitua, Hegoafrikako kantaria eta giza eskubideen aldeko ekintzailea izan zen, Hegoafrikako arrazismoaren eta apartheidaren aurkako borrokaren ikonoa.
- **Concha Buika (Palma):** Ekuatore Gineako erbesteratu politikoa. Jazz, pop, soul, reggae, folk eta flamenkoa musika-estiloak tartekatzen ditu, besteak beste. Interes horrek soinu-nahastearen haurridetasunarekin du zerikusia.

**61.or.: Sothoak:** lurraldea Hegoafrikako Errepublikan eta Lesoton daukan herri bat dira. Sesothoa dute jatorrizko hizkuntza. Hegoafrikako hamaika hizkuntza ofizialetako bat da, eta Lesotoko bi hizkuntza ofizialetako bat.

**62.or.: Tiébélé-en etxe margotuak:** Burkina Fasoko egungo Tiébélé herria erreferente bat da. Pintura eta diseinu aberatsak esanahi desberdinetako erliebeekin nahasten dira.

**Albertina Sisulu (Transkei-Hegoafrika):** apartheidaren aurkako buruzagi nagusietako bat izan zen, eta luze eta zabal aipatu ohi da “Nazioaren Ama” izendatuta. **Winnie Madikizela edo Winnie Mandela (Bizana-Hegoafrika):** politikari eta gizarte-langilea izan zen; bere bizitzaren zatirik handiena apartheidaren aurka borrokatzen eman zuen.

**63.or.: Nguni:** Afrikako hegoaldean hitz egiten diren bantu hizkuntzez osatutako talde soziokulturala da.



## Kontzeptuak hurbiltzen

- 1. Antzinakotasuna:** denboran urrun dauden eta pertsona edo talde sozial baten (familia, klan, tribu, etnia, herria eta abar) jatorrian dauden arbasoen talde bati egiten dio erreferentzia. Leku fisiko eta sozial bati lotuta dago, eta bere ezagutza, jakintza eta mundu-ikuskeretan islatzen da.
- 2. Apartheida:** arraza-bereizketako sistema, Hegoafrikan 1948an formalki ezarritakoa; legeen bidez, eskubide ugari kendu zitzaizkion gehiengo osatzen zuen populazio beltzari.
- 3. Etnologia:** antzinako eta egungo munduko herri eta kulturak aztertzen eta konparatzen dituen gizarte-zientzia da.
- 4. Ludikoa:** jolasarena dena edo jolasari dagokiona.
- 5. Oratoria:** limurtzeko asmoz elokuentziaz hitz egiteko artea da. Hartzaila konbentzitzeko helburu horrek bereizten ditu oratoria eta ahozko beste komunikazio-prozesu batzuk.6.Esaera zaharra: tradizioz modu aldaezinean errepikatutako herri-jatorriko esaldia, pentsamendu morala, kontseilua edo irakaskuntza adierazten duena. Mundu-ikuskeraren baten (mundua ikusteko eta interpretatzeko modua) ezagutza eta transmisio-iturri dira.


## Oroitu beharrekoak

*Hitzaren bidez, Afrikan kultura, mundua ulertzeko eta harremanak izateko modua transmititzen da.*

Afrikan komunitarioa indibidualaren gainera dago: "Garelako naiz, eta, garenez, existitu egiten naiz".

*"Ubuntu"* afrikar balio berezkoa da. Pertsonen arteko elkarrekotasunaren, duintasunaren, harmoniaren eta errukiaren bilaketa esan nahi du.

**Zer gogoratu nahi duzu zuk?**



## Bibliografía eta irudien zerrenda

Barbara Nussbaum (12/02/2003) *African Culture and Ubuntu*. Perspectives, volumen 17. Disponible en: [Researchgate.net](https://www.researchgate.net)

Anta Diop Cheik (enero 2017). *Naciones negras y cultura*. Editorial Bellaterra

José Naranjo (22/04/2015 ) *Manuscritos, ese tesoro en peligro*. El País. [https://elpais.com/elpais/2015/04/22/africa\\_no\\_es\\_un\\_pais/1429685340\\_142968.html](https://elpais.com/elpais/2015/04/22/africa_no_es_un_pais/1429685340_142968.html)

Koffi, Konan Hervé (Universidad Alassane Ouattara de Bouaké. Costa de Marfil). Enero 2014. *El cuento tradicional africano*. Revista de Estudios Filológicos, número 26. Disponible en: [https://www.um.es/tonosdigital/znum26/secciones/estudios-15-koffi\\_cuento.htm](https://www.um.es/tonosdigital/znum26/secciones/estudios-15-koffi_cuento.htm)

El idioma que traje conmigo: Así suena África en España. El País. <https://elpais.com/especiales/2021/asi-suena-africa-en-espana/africa-occidental/>

- <https://geography.name/mali/>
- <https://www.wiriko.org/aula-wiriko/ahmadou-hampate-ba-y-la-oralidad/>
- [https://www.heraldo.es/noticias/ocio\\_cultura/2015/02/27/el\\_blues\\_saharai\\_aziza\\_brahim\\_llega\\_zaragoza\\_342359\\_1361024.html](https://www.heraldo.es/noticias/ocio_cultura/2015/02/27/el_blues_saharai_aziza_brahim_llega_zaragoza_342359_1361024.html)
- <https://gladyspalmera.com/solo-se-vive-una-vez/mama-africa-miriam-makeba/>
- <https://radio.uchile.cl/2020/10/09/concha-buika-tendriamos-que-unir-todas-las-culturas-en-pos-de-la-desaparicion-de-los-miedos/>
- <https://www.power987.co.za/news/emulate-albertina-sisulu-values-anglican-archbishop-urges-countrys-leaders/>
- <https://www.motaword.com/blog/winnie-mandela>





